

Larrialdiko kanpaina

EROSKI -K KANPAINA BAT AKTIBATU DU UKRAINAKO KRISIAK JOTAKO HERRITARREI LAGUNTZEKO

- Bezeroei elkartasuna erakusteko deia egin die, ordainlekuetik pasatzean borondatea emanez herritarren oinarritzko beharrak estaltzen lagundu dezaten, premiaz behar baitute laguntza
- EROSKI eta bezeroek dohaintzan emandako guztia haur eta familia kaltetuentzat bideratuko dute UNICEFen bitartez
- EROSKI, bezeroek emandakoaz gain, ekarpen gehigarri bat egingo du

Elorrio, 2022ko martxoaren 1a.- [EROSKI](#)k martxan jarri du gaur, martxoak 1, bere denda sare osoan larrialdiko kanpaina bat Ukrainan kalte-dun suertatu direnei giza laguntza emateko. Saltoki guztietan, bezeroek dohaintza egin ahalko dute ordainlekuetatik pasatzean.

EROSKI eta bezeroek emandako guztia herritar kaltetuentzat bideratuko dute [UNICEF](#) Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsetan bitartez, Ukrainako haurrak eta haien familiak artatzen ari baitira herrialdearen ekialdean (Donetsken eta Lugansken) 2014an gatazka piztu zenetik. Gaur egun, arriskuan dago 7,5 milioi haurren bizitza eta ongizatea, eta beharrak biderkatu egin dira herrialde osoan. NBEk kalkulatu du bost bat milioi errefuxiatutara iritsiko direla.

UNICEFek, nazioarteko beste erakunde humanitario batzuekin eta herrialdeko agintariekin koordinatuta, lanean ari da premiaz zabalteko laguntza humanitariorako programak Ukraina osora eta harrera egiten ari diren herrialdeetara. Hor sartzen dira edateko ura eta oinarritzko osasun, higiene eta hezkuntza hornidurarako erreserbak eta, horretaz gainera, haurrentzako eta haien familientzako arreta psikosoziala.

"Ukrainako krisia dela medio sortu den laguntza premiak behartu gaitu beste aldera ez begiratzeraz eta gure bezeroei laguntza premiak bideratzeko modua ematera. Dohaintza ordainlekuetan egin behar da, eta kontsumitzaileek erabakitzen dute zenbat eman. Horrelako kanpainak oso inportanteak dira gehien behar den tokira iristeko eta ahalik eta lasterrena iristeko. Seguru gaude kontsumitzaileak beste behin agertuko duela

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

deialdiaren aldeko konpromisoa", esan du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

"Eskerrak eman nahi dizkiogu EROSKIri beste behin berehala eman digulako laguntza haurrik zaugarrienei laguntzeko oinarrizko zerbitzuekin eta produktuekin. UNICEFek su etena eskatzen jarraitzen du, eta haur guzti-guztiak babesteko betebeharraren alde egin dezatela alde guztiek". Marta Lopez Fesserren adierazpenak, UNICEFek Espainian duen Batzordean Aliantza Korporatiboen arduraduna bera.

Dendetan bezeroek emandakoari esker bildutakoaz gain, EROSKIek ekarpen gehigarri bat egingo du; hala, urtero elkartasun kausen alde ematen dituen zazpi milioi euroei batuko die kopuru hori.

EROSKI eta EROSKI Fundazioa, bezeroekin batera, milioi erdi eurotik gorako dohaintzak egin dituzte hondamendi naturalengatik eta kausa humanitarioengatik kaltetu direnei laguntzeko aktibatu diren azken elkartasun kanpainen; besteak beste, Haitirako (2010 eta 2016), Filipinetarako (2013), Nepalarako (2015), Siriarako (2015), Mallorcarako (2018), Palmarako (2020) eta oraingo honetan, Ukrainako krisirako.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa